

NUEVA IMAGEN

En el proceso de preparación del cincuenta aniversario de la constitución de Andra Mari Abesbatza, nuestra entidad coral cuenta con un nuevo logotipo, una nueva imagen para seguir construyendo y desarrollando Andra Mari Abesbatza.

A M A Andra Mari Abesbatza, en ese doble concepto sobre una imagen clara y limpia se construye la nueva imagen de nuestra familia coral. AMA, se constituye en acrónimo, una sigla que une y representa a las tres primeras letras de Andra Mari Abesbatza, pero que al mismo tiempo se lexicaliza haciéndose acrónimo, permitiendo una suma de significados, al unir a nuestra entidad coral y su nombre con el concepto de "ama", madre.



Un trazo gráfico limpio, unido a la simplicidad y elegancia, con el azul oscuro como color corporativo principal, nos permiten disponer de un logotipo adecuado para el presente y el futuro que Andra Mari Abesbatza, los hombres y mujeres que constituimos esta familia coral, estamos construyendo.

Nuestra nueva imagen ha sido desarrollada en Errenteria por Tempografix, estudio de diseño joven y con una amplia experiencia.



Andra Mari Abesbatzaren intraneta

Musika ikasturte berriarekin batera, Andra Mari Abesbatzak bere maila eta alor guztietan tresna berri bat erabiltzen hasi da musika prestakuntzarako eta abesbatza bera egituratzeko eta sendotzeko: komunikazio elektronikoa. Intraneta dugu hemendik aurrera ohiko baliabidea, gure jarduerara eta lanetarako ezinbesteko laguna.

Abesbatza osatzen dugun lagun guztiei aurkeztu zaigu kurtso berria hasi bezain pronto, hemendik aurrera gure musika prestakuntzarako eta abesbatza egiteko erabiliko dugun tresna berria. Komunikazio tresna dugu, guretako bakoitzari zuzendua eta egokitua. Andra Mari Abesbatzaren Intranetean, A.M.A. osatzen dugun abesbatza bakoitzekoa (Musika Tailerra, Orereta Txiki, Orereta, Oinarri eta Andra Mari Abesbatza) eta Andra Mari Abesbatza guztiaren informazioa eskainiko zaigu, norbera bakoitzari egokitua.

Horretarako guretako bakoitzak -abeslaria guztiak eta adin txikiko abeslarien gurasoak- beraren hitz gakoa jaso du eta horren bitartez sartu ahal izango da berari dagokion Intraneteko atalean. Desberdina baita Musika Tailerra edo Andra Mari Abesbatza, eta horrekin batera norberaren intereserako beharrezkoa den Andra Mari Abesbatza osoaren informazioa izango du bertan.

A.M.A.ren FITXA



Logo historikoa

Andra Mari Abesbatzaren irudia Ramon Martinez Arozena arkitektoak egin zuen Andra Mari Abesbatzaren hastapenetan, 1967an eta ordutik ona abesbatza eta elkarteak izan duen irudia dugu. Abangoardiakoa garatu zenean, Andra Mari Abesbatzaren izena eta izana biltzen du bere baitan eta jasotzen duen sinbologian. Andra Mariaren siglak "A" eta "M" hizkietan laburtuak, alfa eta omega, hasiera eta amaiera adierazten dutenak ere, amaierarik gabeko pentagrama, eta pentagrama hori zati jakin batean bildua, guzti horrekin adierazi zuen ezin egokiago Ramon Martinez Arozenak gure abesbatzaren izana.



Santa Cecilia zikloa

Hemen da eta azaroan izango da. Aurten ere musikak bere bederatziruena izango du Errenterian, Santa Cecilia Zikloaren baitan. Musika zentzu eta baliabide guztietan, eskaintza ugaria eta zabala izango du bere 29. urtera iritsi den abesbatza eta musikarien festa honetan.

Andra Mari Abesbatza Kultur Elkarteak antolatzen duen musikaren patroia erren musika bederatziruena honetan, Errenteriako musika eta abesbatza taldeak elkartzen dira maila handiko eskaintza emateko, musika eta abesbatzen zaleentzat eta musika eta abesbatzen partaide direnentzat ere. Herrikoa eta herriarentzat, Errenteriako musikari, abesbatza, txistulari, banda, orkestra, txaranga... bat eginda beraientzat eta musika zaleentzat programa zabala eskaintzeko.

Andra Mari Abesbatza Kultur Elkarteak urtero antolatzen duen aste honetan partaide dira Eresbil, Musikaren Euskal Artxiboa, eta Errenteria Musikal. Zikloak Errenteriako Udalaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Kutxaren babesa jaso du. Santa Cecilia eta San Cecilia Zikloak zure beharra du, etxekoen festa izanda, etxekoak behar ditu hori disfrutatzeko. Zain zaitu.

Ya está aquí, será en noviembre. Errenteria vivirá una novena de actividades musicales dentro del Ciclo de Santa Cecilia. La música será protagonista en sus más variadas facetas, una oferta amplia y de calidad en esta fiesta de los amantes de la música y el canto que llega a su 29ª edición.

Esta peculiar novena musical organizada anualmente por Andra Mari Abesbatza Kultur Elkarteak en torno al día de la patrona de la música, reúne a grupos de música y corales de Errenteria, hecho por y para los amantes de la música en un programa tan amplio como diverso. Los grupos musicales de Errenteria, todos los niveles corales de Andra Mari Abesbatza, txistularis, banda, orkestra, txaranga... unidos para disfrutar de la música y ofrecer un amplio programa para ti, amante de la música.

Organizado, como es habitual desde sus orígenes, por Andra Mari Abesbatza Kultur Elkarteak, participan en el ciclo Eresbil -Archivo Vasco de la Música- y Errenteria Musikal. Santa Cecilia 2011 cuenta con el patrocinio de la Diputación Foral de Gipuzkoa, Ayuntamiento de Errenteria y Kutxa. El Ciclo cuenta contigo y te necesita, siendo nuestra fiesta, la de los amantes de la música, tú eres imprescindible. ¡Disfrútala!



Andra Mari Abesbatza Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren Abonu Denboraldian

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak berriro ere Andra Mari Abesbatza gonbidatu du V. Denboraldi Egitarauan parte hartzeko. Azaroaren 25etik abenduaren 2ra bitartean emango ditu biraren ohiko kontzertuak gure hiriburu eta auditorioetan: Kursaal, Baluartean, Printzipal Antzokian eta Euskaldunan.

Schubertek (1797-1828) egin zituen 6 mezetatik 5.a kantatuko du, La bemol maiorrean idatzitako Meza Solemnea, hain zuzen. Andres Orozco Estrada Orkestraren zuzendari titularrak zuzenduko ditu korua, orkestra eta bakarlariak, Ana Quintans sopranoa, Ida Aldrian mezzosopranoa, José Luis Sola tenorra eta Klemens Sander baritonoa. Camile Saint Saëns musikagilearen 3. Sinfoniak osatuko du egitaraua.

Walther Dürr-ek dioenez, Schubertek gainontzeko meza sortzeko behar izan zuena baino askoz denbora gehiago behar izan zuen La bemol maiorrean eginiko Meza Solemnea idatzeko: 1819ko udazkenean hasi eta 1822ko udazkenean amaitu zuen. Ez zuen enkarguz edota emanaldi zehatz baterako sortu, besteak sortu zituen moduan, lortu zuen maisutasuna erakusteko baizik. Schubertentzako oso musika-lan garrantzitsua izan zen eta hori argi ikusten da Josef von Spaun bere lagunari 1922ko abenduan igorri zion eskutitzean: "Enperadoreari edo Enperatrizarari eskaintzeko aspaldiko asmoa dut, oso ongi eginga delakoan bainago"

Errenteria 2011ko udazkena BERRIPAPERA

UDAZKENA AGENDA

Urriaren 1a
Orereta Irungo Amaia Antzokian
Bidasoako Abesbatzen V. Jaialdia
Ametsa Abesbatza antolatua

Urriaren 9a
Andra Mari Irungo Sagrada Familia elizan
Sagrada Familia elizaren 50. urteurrena

Urriaren 16a
Andra Mari Saran (Lapurdi)
Sarako Udalak antolatua

Azaroaren 12a
Orereta Noainen (Nafarroa)
Nafarroako Abesbatzen Federazioak antolatua

Azaroaren 15etik 19ra
Santa Zezilia Musika astea
A.M.A.k antolatua

Azaroaren 18a
Orereta Altzan
Mintegia Elkartearen
25. urteurrena
Mintegia Elkarteak antolatua

Azaroaren 25a
Andra Mari Kursaal (Donostia)
EOSaren 2011-12. denboraldia

Azaroaren 28a
Andra Mari Baluartean (Iruñea)
EOSaren 2011-12. denboraldia

Azaroaren 29a
Andra Mari Principal Antzokian (Gasteiz)
EOSaren 2011-12. denboraldia

Azaroaren 30a
Andra Mari Euskalduna Jauregian (Bilbo)
EOSaren 2011-12. denboraldia

Abenduaren 2a
Andra Mari Kursaal (Donostia)
EOSaren 2011-12. denboraldia

Abenduaren 15a
Andra Mari Principal Antzokian (Gasteiz)
Mesias partehartzailea
La Caixak antolatua

Abenduaren 18a
Orereta-Oinarri Niessen Aretoan (Errenteria)
Casas Regionales antolatua

Abenduaren 21a
Andra Mari Kursaal (Donostia)
Gabon Kontzertua
DVk antolatua

Abenduaren 23a
A.M.A. Fatima elizan (Errenteria)
Gabon kontzertua
A.M.A.k antolatua

Abenduaren 30a
Orereta Txiki eta Orereta Kiroldegian (Errenteria)
Gabon Sariketa
Ereintza Elkarteak antolatua

Etorkizun osasuntsua

Udako atseden egunak atzean utzi eta irailaren 12an, lanerako prest eta ilusioz beteriko 210 haur eta gazte heldu diete ikasturte berriak eskaintzen dien erronka berriei.

Lorea Intxaurrendieta izango dugu gure txikitxoengan abesteko grina suspertze lanetan arituko den irakaslea, 6 eta 7 urteko haurrek osatzen duten Musika Tailerraz arduratuko baita.

Imanol Elizasuren eskutik arituko dira Andra Mariren harrobia osatzen duten gainontzeko haur eta gazte abesbatzak, Orereta Txiki, Orereta, Oinarri eta aipaturiko hiru taldeetan lanean arituko diren 34 mutilez osaturiko eskolania.

Harrobiaren osaketa:

Musika Tailerra: 24 haur
Orereta Txiki: 60 haur
Orereta: 104 gazte
Oinarri: 22 gazte
Eskolania: 34 Haur-gazte



Ekainean ohiko kurtso bukaerako kontzertuan gure harrobia osatzen duten abesbatza guztiak izango ditugu.

Ezohiko kontzertuak ere izango ditugu. Apirilaren 28tik maiatzaren 1era Kataluniako Manlleu Musika Eskolako abesbatza eta uztailaren 4tik 8ra berriz, Alemaniako Altensteig herriko haur abesbatzako kideak etorriko zaizkigu eta gure etxeetan hartuko dute ostatu.

Gure ohiturak eta kulturaren berri emateko aukera ezin hobea izateaz gain, Kataluniako eta Alemaniako haur abesbatzen egoera ezagutuko dugu eta gure gazteek kultura desberdinetara hurbiltzeko aukera paregabea izango dute.

Herritik kanpoko kontzertuak

Urriaren 1ean, Irungo Ametsa Abesbatzak antolatzen duen Bidasoako Haur Abesbatzen V. Jaialdian parte hartzeko gonbitea luzatu diote Orereta Abesbatzari.

Azaroan eta Abenduan zehar Nafarroako Abesbatzen Federazioarekin 2009an izenpetutako proiektuaren barruan, Oreretak eta Oinarrik Noainen eta Iruñean emango dituzte kontzertuak.

Azaroaren 18an berriz, Altzako Mintegiaren 25. urteurrenaren ospakizunean arituko dira.

Datak finkatzeko badaude ere, udaberri aldera Orereta-Oinarrik Kataluniako Manlleu herrian kontzertuak emango ditu eta 2012ko abenduaren 4tik 9ra, Alemaniako Altensteig-en izango dugu Orereta.

Ikasturte betea, lanez baina ilusioz betetakoa, gure herriko haur abesbatzen osasun onaren adierazgarri garbia. Andra Mari Abesbatzak etorkizun sendoa eta osasuntsua izan dezake behar adineko baliabideak eskuratuko balitu.



Ikasturte berriaren ardatz nagusiak:

Herriko ikastetxe guztiekien elkar lanean:

Duela 8 urtetik hona, abian jarri genuenetik egitasmo hau, urtez urte eta batz besteko 300ren bat ikasle aritzen da, urtean zehar, kantua lantzen ikastetxeetan.

Egindako lanaren emaitzak, ikastetxe bakoitzarekin, ikasturte amaieran, antolatzen ditugun jendaurreko bi emanaldi nagusitan ezagutu daitezke.

Ikusgarria da baieztatzea zein potentzial handia dagoen kantua inguruan, nola urtez urte lepo betetzen diren aretoak, 1000-1500 pertsona inguru hurbiltzen dira, guztira, ikastetxeekin batera antolatzen ditugun emanaldi hauek entzutea. Izugarria benetan!!

Kontzertu eta emanaldien antolaketa herrian

Gure Elkartea osatzen duten talde guztiek hartuko dute parte azaroan eta abenduan antolatzen ditugun Santa Zuzilia musika astean eta Gabon Kontzertuan, hurrenez hurren.

Apirilean hasi eta maiatza bitartez, Orereta Txiki eta Orereta Abesbatzak buru belarri arituko dira ikastetxe desberdinetako ikasleekin batera lanean. Guztira, jendaurreko 14 kontzertu desberdin emango dituzte.

Maiatzean, Eresbilekin batera antolatzen dugun Musikaste astean kantatuko du Orereta Abesbatzak.

El mesías de Haendel

La Coral Andra Mari de Errenteria, tras el rotundo éxito conseguido el pasado año en el Auditorio Baluarte de Pamplona, ha vuelto a ser invitada por la Obra Social de La Caixa para intervenir como coro principal, cantando la magna obra El Mesías (The Messiah) de Haendel, en el Concierto participativo organizado por la entidad catalana para este año 2011.

El concierto está previsto para el próximo 15 de diciembre, a las 20 horas, en el Teatro Principal de Vitoria.

La Coral Andra Mari actuará en el escenario junto a la Orquesta de Euskadi.

Con los solistas Malin Christensson, soprano; Catherine Hopper, mezzosoprano; Ed Lyon, tenor; Roderick Williams, bajo; y la participación en la sala de los Coros de Álava.

El director inglés Philip Pickett, especialista en música barroca, es el encargado de conducir al conjunto en este gran oratorio.

Georg Friedrich Händel (1685-1759), genial compositor alemán, sajón, nacionalizado británico, escribió esta obra maestra, en quince días, glosando el anuncio, la venida y la muerte de Cristo.



Es una obra de orfebrería musical que maravilla a los intérpretes y a los oyentes y la Coral Andra Mari, que la ha incorporado a su repertorio en su versión inglesa, está en condiciones de interpretarla donde la demanden.

Guridi abestuz

Aurten Jesús Guridi gogoratu eta omentzen ari gara bere heriotzaren 50garren urteurrena delako. Musika Hamabostaldia ere gogoan izan du, eta aurtengo edizioan Guridiren musikaz hornituriko hiru programa antolatu ditu. Hauetako bat Andra Mariren esku, "Musika aitzakia-Quincena andante" izenez Donostiatik kanpo egiten diren kontzertuen egitarau barruan, Gasteizen, abuztuaren 6an. "Andra Mari Zuri" jai egunetan blai, eta baita euritan ere blai, aurkitu genuen hiria larunbat arratsalde hartan. Karmeldarren elizan, itxuraz J. Guridik zinez estimatzen zuena, eskaini zuen Andra Mari kontzertua musikari omenduaren lanez osatua. Lehen zatian Gerardo Rifón organojoleak lagundu zion, eta bigarren zatian "a capella" aritu zen. Eliza jendez beteta, eta entzuleen artean baita Guriditarrak ere: musikariaren bi semeak, errainak eta biloba. Oso pozik zeuden Andra Mari egindako eskaintzarekin, eta familiaren esker ona eta zorion-agur beroa adierazi zizkieten bukaeran J. M. Tife zuzendariari.

Entzuleetako bat Juanjo Mena zuzendaria izan genuen, eta beste bat Sabin Salaberri musikari irakaslea. Salaberrik bere harridura eta poza azaldu zizkion J. Manuel Tiferi, Guridiren lanak ondo ezagutzen zituela uste izan arren, kontzertuaren lehen parteko hainbat obra arratsalde horretan deskubritu zuelako. Beraz, esker on José Manuel Tiferi aukeratzeko jakin zuelako, Jon Bagues-i Guridiren ondarea eskuratu eta zaintzeagatik, eta José Luis Ansorenari Eresbil sortu zuelako. Hau kate bat da, argi dago.

